

Osasun gastuaren finantzazio pribatua gora doa krisia hasi zenetik

Unai Martín

”

Finantzazio pribatua %19 handitu zen 2009. urtetik, gastu pribatuak gora egin duelako eta gastu publikoak 2009tik aurrera geratu egin delako.


Iradokitutako aipua: MARTIN, U. (2019) *Osasun gastuaren finantzazio pribatua gora doa krisia hasi zenetik*. OSEKI Osasun eskubidearen aldeko ekimena- Iniciativa por el derecho a la salud. Eskuragai: <https://www.oseki.eus/eu/arloak/euskadiko-egoera/osasun-sistema/>

BOLETÍN OSEKI Nº 2
ISSN: 2695-5342



Osasun gastuan, finantzazio pribatuaren portzentajeak gora egin du Euskadin azken urteetan. Hala, diru pribatuarekin finantzatutako gastuaren portzentajea 2,5 puntu portzentual (%9,2) igo da 2000tik 2016ra bitarteko tartean. Igoera hori, nolahi ere, ez da berdina izan aldi guztian, handiagoa izan baita azken urteetan. 2000. eta 2009. urteen bitartean modu pribatuan finantzatutako gastu sanitarioa 2,2 puntu portzentual jaitsi bazen ere, ondorengo aldian, 2009tik 2016ra bitartekoan, portzentaje hori 4,7 puntu portzentual igo zen, hots, osasunaren finantzazio pribatua %18,7 igo zen 8 urtean.

1. GRAFIKOA. OSASUNeko GASTU ARRUNTAREN PORTZENTAJEA, FINANTZAZIO PUBLIKOAREN EDO PRIBATUAREN ARABERA. EUSKADI 2000-2016.




ITURRIA: EGILEEK EGINA EUSTAT-EN DATUETAN OINARRITUTA (OSASUN KONTUA)

Osasuneko gastuaren finantzazio pribatuaren portzentajearen bilakaeran aldaketa txiki batzuk izan ziren finantzazio pribatuaren iturri nagusietan, osasuneko aseguru pribatuen gastuan eta etxeen zuzeneko ordainketan, alegia. Finantzazio pribatuak behera egin zuenean 2000tik 2009ra bitarteko aldian, aseguruaren finantzazioaren portzentajea gehiago jaitsi zen etxeetako zuzeneko ordainketena baino, hurrenez hurren %12,0 eta %6,1 izanik. Hazkunde garaian, ordea, 2009tik 2016rako tartean, aseguruak gehiago igo ziren, %23,8 hain zuzen ere, etxeetako zuzeneko ordainketa %17,8 igo zen bitartean.

Bilakaera horretan, txikia izan da gainerako eragile pribatuek, enpresa pribatuek eta etxeen zerbitzurako irabazi asmorik gabeko erakundeek (EZMAEDEP) egindako ekarpena. Soilik %0,50eko eta %0,04ko ekarpena egiten dute,

hurrenez hurren, osasun gastuan. Parte-hartzearen portzentaje hori jaitsi egin zen aipatu tarte horretan, bai enpresen kasuan (%23,1) bai EZMAEDEPetan (%64,6); edonola ere, enpresetan badirudi azken urteetan berreskuratzen ari dela osasun gastuan duten parte-hartzearen portzentajea, %20,0 igo baita 2009tik 2016 bitartean.

2. GRAFIKOA. FINANTZAZIO PRIBATUAREN OSASUNEN GASTU ARRUNTAREN PORTZENTAJEA, FINANTZAZIO ITURRIAREN ARABERA. EUSKADI 2000-2016




ITURRIA: EGILEEK EGINA EUSTAT-EN DATUETAN OINARRITUTA (OSASUN KONTUA)

Ikusi izanenez, finantzazio pribatua handitzen joan da azken urteetan, baina ez bakarrik finantzazio pribatuaren guztizko gastuak gora egin duelako, baita finantzazio publikoaren 2009. urtetik honako geraldiaz ere. Izan ere, 2000tik 2016ra bitarteko aldi osasunera zuzendutako finantzazio publikoa 2,3 biderkatu bazen, osasunera zuzendutako finantzazio pribatuaren zenbatekoa 2,6 biderkatu zen. Igoera hori, gainera, apur bat handiagoa izan zen etxeetan egindako zuzeneko ordainketetan.

Azpitarratzekoa da aldeak handiagoak izan zirela 2009tik 2016 bitarteko tartean, hein batean finantzazio publikoak gora egin zuelako 2008. eta 2009. urteetan, ondorengo urteetan jaisten hasi eta geraldira iritsi bazen ere. 2009tik 2017ra bitarteko aldi, zehazki, administrazio publikoek osasunera bideratutako aurrekontua %6,0 besterik igo ez bitartean finantzazio pribatuaren osasun gastua %34,2 igo zen, guztira. Igoera hori apur bat handiagoa izan zen osasun aseguruetan egindako gastuan, %40,0 hain zuzen, etxeetako zuzeneko ordainketa, berriz, %33,2 igo zelarik.


3. GRAFIKOA. OSASUNeko GASTU ARRUNTAK 2000. URTETIK (2000=100) IZAN DUEN BILAKAERA, FINANTZAZIO MOTAREN ARABERA. EUSKADI 2000-2016



ITURRIA: EGILEEK EGINA EUSTAT-EN DATUETAN OINARRITUTA (OSASUN KONTUA)

Osasun gastua zein eginkizunetara bideratzen den kontuan hartuz gero, finantzazio pribatuaren portzentaje igoera nabarmenagoa da osasuneko laguntza zerbitzuetan, finantzazio pribatuaren gastua %46,5 igo baitzen 2009tik 2016 bitarteko tartean. Igoera bereziki garrantzitsua izan zen irudi bidezko diagnostikoetan. Horietan, %139,8 igo zen finantzazio pribatua. Produktu medikoetan ere esanguratsua izan zen finantzazio pribatuaren gorakada, %41,7 igo baitzen, eta horietan azpimarratzekoak izan ziren produktu farmazeutikoen eta iraupenezkoak ez diren bestelako osasun materialen finantzazio pribatuan izandako igoera.

4. GRAFIKOA. FINANTZAZIO PRIBATUAREN PORTZENTAJE ALDAKETA (PORTZENTUALA), ZEIN EGINKIZUNETARA BIDERATUA DEN KONTUAN HARTUTA. EAE, 2009TIK 2016RA.



ITURRIA: EGILEEK EGINA EUSTAT-EN DATUETAN OINARRITUTA (OSASUN KONTUA)



ARGITARATUTA: Leioan, Espainian

EDITOREA: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)